

EUSKADIKO HAUR BERMEAREN ESTRATEGIA 2030

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
1. DOKUMENTUAREN EZAUGARRIAK.....	4
2. EUROPAKO HAUR-BERMEA	6
3. PREMIEN ETA LEHENTASUNEZKO ERRONKEN DIAGNOSTIKOA.....	7
3.1. TESTUINGURU SOZIALAREN ETA POLITIKEN BILAKAERA.....	7
3.2. NAZIOARTEKO ARAU- ETA PLANGINTZA-ESPARRUA	9
3.3. HAURRAK ETA NERABEAK EUSKADIN	12
3.4. HAUR ETA NERABEENTZAKO POLITIKAK EUSKADIN	24
3.5. POLITIKA PUBLIKOEN ESPARRU BERRIA	29
4. HAUR BERMEA LORTZEKO EUSKAL EREDUAREN OINARRIAK.....	34
4.1. KONTZEPTU-ESPARRUA.....	34
4.2. ESTRATEGIAREN PRINTZPIO GIDARIAK, EGINKIZUNA ETA IKUSPEGIA.....	38
5. ORIENTABIDEAK.....	40
5.1. ERRONKAK.....	40
5.2. JARDUERA-ARDATZAK ETA -ESPARRUAK.....	41
5.3. HELBURU OROKORRAK	42
6. GOBERNANTZA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	43
6.1. ESTRATEGIAREN ARTIKULAZIO INSTITUZIONALA	43
6.2. GOBERNANTZA, EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA.....	44
6.3. ADIERAZLEEN MATRIZEA	45

AURKEZPENA

Haurrak eta nerabeak eskubideen *titularrak dira, beren orainaren protagonistak eta euren eta euskal gizartearen etorkizunaren eraikitzaile* aktiboak. Horixe da Haurren eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen perspektiba, eta Estrategia hau lehen garapen bat da.

Haurren bermea funtsezko bitartekoa da eskubideak eraginkortasunez erabiltzeko, bizitza osoa izateko, haurtzarotik gizartearen parte hartzeko, eta baita aukera-berdintasuna bermatzeko ere.

Ikuspegi horrekin, estrategiak haurrek eta nerabeek beren bizi-proiektuak sustatzeko eskubideetara iristeko duten aukerari helden dio, eta modu berritzailean nabarmentzen ditu funtsezko arloak, baina ez beti kontuan hartzen direnak, hala nola aisia eta kultura, bai eta haien parte-hartze sozial eta politikoa ere.

Eta haur eta nerabe guztiek eskubide guztiak benetan balia ditzaten sustatzean oinarritzen da ikuspegi hori, eta arreta berezia eskaintzen die lehen hurrei, funtsezko etapa den aldetik, bai eta bazterketa edo egoera zaurgarrian dauden hurrei ere.

Eraldatzen ari den eta gero eta anitzagoa den Euskadi batean, ezinbestekoa da haurren eta nerabeen eta familien politika bultzatzea, kalitatearen, eraginkortasunaren, unibertsaltasunaren eta elkartasunaren printzipioetan oinarrituta, eta haurren, nerabeen eta familien aniztasunera egokituta, eta arreta berezia eskainiz zaurgarrienei, aukera-berdintasunaren eta gizarte-kohesioaren mesedetan.

Hala, Euskadiko Haur Bermearen Estrategia espektro zabaleko estrategia da, eta haur eta nerabe guztiak eskubideen subjektu eta garapenaren protagonista direla aitortzen du. Eta bere aukerak zabaltzeko euskarria da, prebenitzeko, sustatzeko eta babesteko eginkizun hirukoitza bultzatuz eta haur zaurgarrienei zuzendutako ekintza positiboko neurriak hartuz, horrela Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen aurreikuspenak hedatuz.

Horretan guztian euskal estrategia Europako Haur Bermearekin bat dator, honek definitzen dituen eskubideak eta zerbitzuak ziurtatzetik hasita. Horrela, haurrek eta nerabeek beren oinarritzko beharrak bete ditzaten lortu nahi da, beren gaitasunak ezagutu eta gara ditzaten, beren bizi-proiektua definitu eta eraiki dezaten begirada irekiarekin, beren iritziak adieraz ditzaten eta beren ingurunean eragin dezaten, ingurune hori eraldatzen eta haur eta nerabeentzat, beren aniztasunean, atseginago bihurtu dadin lagunduz.

Europako Batzordearen Gomendioak <<*Haurrengan inbertitu: desabantailen zikloa apurtu*>>> egiten duen bezala, estrategiak haur eta nerabeen politika paradigma inbertitzailearen funtsezko adierazpenez hartzen du. Eta eskubide- eta aukera-berdintasunaren ikuspegitik, arreta jartzen du prestaketan (prebentzioa eta sustapena) eta erreparazioan (babesa). Euskal legearekin bat datorren ikuspegi eta funtzio horrekin, desabantailen zikloa eta pobreziaaren belaunaldien arteko transmisioa hautsi nahi du.

Horrela, Euskadiko Haur Bermearen Estrategia eta estrategia hori garatzen duten erakunde arteko hurrengo planak lehen mailako gizarte-inbertsioa dira. Eskubide eta aukeren bermea, haur, nerabe eta haien familia guztien bizi-proiektuak bultzatzeko, eta berdintasunerako, parte-hartzerako eta gizarte-kohesiorako funtsezko bitartekoa.

Nerea Melgosa Vega
Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko sailburua

1. DOKUMENTUAREN EZAUGARRIAK

Oinarrien dokumentua da

Dokumentu honek Euskadiko Haur Bermearen Estrategiaren (aurrerantzean EHBE) oinarriak finkatzen ditu, Europako Haur Bermearen esparruan. Eta, *oinarri-dokumentu gisa, haur-bermearen eremu guztietan esku-mena duten erakundeek plangintza orientatzea bilatzen du, bai eta Euskadin bizi diren haur eta nerabeen¹ bizi-baldintzetan, eskubide eta aukeretan eragiteko gaitasuna duten beste sektore batzuen ere.*

Dokumentuak ezartzen dituen oinarriak, ondoren, erronka, ardatz, jarduketa-eremu eta helburu orokor estrategikoetan zehazten dira. Horiek orientabideak dira sektore publikoaren ekintzarako, familiek eta komunitateekin, gizarte-ekimenarekin (hirugarren gizarte-sektorea) eta enprekin lankidetzan.

Erakunde eskudunek eta haur-bermearen berezko esparruetan parte hartzen duten beste eragile batzuek kontuan hartuko dituzte orientabide horiek, beren ekintza planifikatzerakoan, beren errealitate zehatzari egokituta.

Zehazki, Familiei eta Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakunde arteko V. Planak bat egingo du EHBekin, eta aintzat hartuko ditu orientabide horiek, bai eta helburu estrategiko bakoitzarekin lotutako gomendio eta jarduketa ugari ere (dokumentu honen bosgarren atala), EHBE egiteko prozesuan identifikatu zirenak. Dokumentu horrek, oinarrien dokumentua denez, ez ditu jasotzen, baina erakundeek eta entitateek, aztertutako ondoren, beren plangintzan sartu ahal izango dituzte.

Europako Haur Bermearen barruan dagoen dokumentu bat da, eta hura zabaltzen du

Europako Haur Bermearen esparruan, EHBE **premia duten haur eta nerabeei** eta haien familiei zuzentzen zaie, honako hauek barne hartuta: a) gizarte-bazterkeria, pobrezia edo haien arriskua; b) dokumentu honetan, sakontasun-asmorik gabe, zerrendatzen diren kalteberatasun-egoerak; c) Europako Haur Bermea ezartzen duen *Kontseiluaren (EB) 2021/1004 Gomendioak definitzen dituen pobrezia-, bazterkeria- edo gabetze-egoerak*.²

“Premia duten haurrak dira hemezortzi urtetik beherakoak, pobrezia edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenak; txirotasun-arriskuan dauden, gabezia material eta sozial larria duten edo lan-intentsitate oso txikia duten familietan bizi diren haurrak dira”³.

Euskal estrategia Europako Haur Bermeak lehenesten dituen eskubide eta esparruetan oinarritzen da: hezkuntza eta haurren zaintza, osasun-laguntza, derrigorrezko hezkuntza, derrigorrezko hezkuntzaren ondo-koa eta eskolaz kanpoko jarduerak, etxebizitza eta elikadura osasungarria.

¹ Dokumentu honetan, “haurrek eta nerabeak” esamoldea, kasu guztietan, adingabeei dagokiela ulertzen da. Hau da, 0 urtetik adin-nagusitasunera bitartekoak.

² “Haurrentzako” berme terminoari eustea erabaki bada ere, bai Europako estrategiak, bai Euskal Herrikoak, nerabeak barne hartzen dituzte. Bestalde, hitzez hitzeko aipuak errespetatuz, hizkera inklusiboa hartzen da generoaren ikuspegitik. Era berean, “premia duten haurrak” terminoa saihesten da, eta nahiago da “premia egoeran” edo “beharrean” dauden haur eta nerabeak.

³ Apustu horren oinarria da ikuspegi unibertsalak ez direla hain estigmatizatuak baizik eta eraginkorragoak eta sozialki iraunkorragoak fokatatuak baino. Esate baterako, nahikoa ebidentzia dago baieztatzeko seme-alabak dituzten familia guztien hazkuntza-kostuak konpentsatzen dituzten herrialdeak direla seme-alabak dituzten familien pobrezia-intentsitatea gehien murrizten dutenak, eta, gainera, nahi duten seme-alaben eta benetako seme-alaben arteko distantzia neurri handiagoan murrizten dutenak. Horrek ez du eragozten EHBek erantzunak talde bakoitzaren (adina, egoera... kontuan hartuta), pertsonaren eta familiaren behar espezifikoetara egokitzea, betiere elkartzaren printzipioei (aniztasunera egokitzea) eta arreta pertsonalizatzearen printzipioei jarraiki, eredu komunitarioak berezkoak baititu.

Era berean, Europako Haur Bermearekin bat datorren haur-bermearen ikuspegi zabal batetik, funtsezko beste gai batzuk ere sartzen dira: enplegua eta diru-sarreraren bermea; familientzako laguntza edo prestazio ekonomikoak; kultura, aisia eta kirol inklusiboak; eta haur eta nerabeen parte-hartzea.

Prestatzeko jarraitutako metodoa

Dokumentu hau prestatzeko, jarduera hauek egin dira:

- Tailerra, haur-bermearen arloan eskumena duten erakunde publikoen ordezkari diren teknikariek. Bertan, diagnostikorako oinarrizko elementuak aurkeztu ziren, estrategiaren irizpide, helburu eta ezau-garri orokorreki buruzko lehen proposamena planteatu zen, eta strategiaren edukiei buruz eztabaidatu zen hogeit bat parte-hartzaileekin.
- Haur eta nerabeen arloan lan egiten duten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako profesional eta ordezkari osatutako tailerra. Eduki eta metodologia berarekin, hogeit bat lagunek parte hartu zuten.
- Nerabeen talde batekin parte hartzeko saio bat, Arartekoko Nerabeen Kontseiluarekin lankidetzan. Metodologia berezi baten bidez dinamizatzen da, iritzia adierazi eta ekarpenak jaso ahal izateko.
- Online inkesta bat haurren eta nerabeen eremuan lan egiten duten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako ordezkari eta profesional teknikoei, dagokion tailerra egin ondoren eta strategiaren atal guztiei buruz (diagnostikoa, orientazioa, artikulazioa, etab.) egin dituzten ekarpenak jasotzeko galdera-sorta ireki baten bidez, karaktere mugarik gabe.

Era berean, Euskadiko haur eta nerabeen egoerari buruzko datuak biltzeko lan bat egin da, haurren bermearen hainbat esparruri dagokionez, bai eta haurren eta nerabeen politiken arau-esparrua eta plangintza aztertzeko ere, bai eta familia ere.

Dokumentuaren egiturari dagokionez, lehenengo atal honen ondoren, Europako Haur Bermearen ezaugarri nagusiak identifikatzen dira, gero premien eta politiken bilakaeran eragiteko.

Ondoren, Haur Bermearen Euskal Ereduaren oinarriak finkatu eta plangintza estrategikorako orientabideak ezarri dira, bai eta gobernantzako, segimenduko eta ebaluazioko mekanismoak ere.

2. EUROPAKO HAUR-BERMEA

Europako Haur Bermea (*European Child Guarantee*) Kontseiluaren 2021eko ekainaren 14ko (EB) 2021/1004 Gomendioan ezarri zen. Estatu kideek aho batez onartu zuten gomendio hori, haurren pobrezia-eraztearen zikloa hautsi eta haur eta nerabe guztiak aukera-berdintasunean gara daitezen.

Horretarako, administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, **sei eskubide** bermatu behar dizkiete haur eta nerabe guztiei:

- Haurren hezkuntza eta zaintza (lehenengo etapetan).
- Osasun-laguntza.
- Hezkuntza eta eskola-jarduerak (eskolaz kanpokoak barne).
- Etxebizitza egokia.
- Elikadura osasungarria; eta, gutxienez, janari osasungarri bat eskola-egun bakoitzeko.

Europako Haur Bermearen helburua **gizarte-bazterkeriari aurrea hartzea da, bai eta haur-pobrezia-eraztearen zikloa haustea ere**, oinarritzko sei eskubide eta zerbitzu horiek eskuratzea bermatuz.

Hala, adinez nagusi diren arteko pertsona guztiei zuzendutako politikaren esparruan, **lehenesten ditu kalteberatasun handiena duten haur eta nerabeak**, pobrezia, bazterketa, diskriminazioa, desgaitasuna, migrazioa, abusua edo arduragabekeria bezalako faktoreen ondorioz. Haurren pobrezia-eraztearen aurka borrokatuz eta aukera-berdintasuna sustatuz, Europako Haur Bermeak haur eta nerabeen eskubideak babesten eta eskubide horiek guztiak benetan balia daitezten sustatzen laguntzen du.

Zehazki, Europako Batzordeak konpromisoa hartzen du haur eta nerabe guztiei kalitate handiko arreta bermatzeko lehen haurtzaroon, honako hauek barne: a) haur-hezkuntzarako sarbide eraginkorra eta doakoa; b) hezkuntzarako eta eskola-jardueretarako sarbide eraginkorra; c) elikadura osasungarria izateko aukera, eskola-egun bakoitzean gutxienez janari osasuntsua ziurtatuz; d) osasun-laguntzarako sarbide eraginkor eta doakoa; e) etxebizitza egoki baterako sarbide eraginkorra.

Horretarako, Gomendioak neurri hauek proposatzen ditu:

- haur eta nerabeen gizarte-bazterkeriari aurre egiteko jarduera-esparrua sortzea;
- oztopo ekonomikoak eta bestelakoak antzematea eta horiei aurre egitea, haur-hezkuntzan eta lehen haurtzaroko arretan, hezkuntzan eta eskola-jardueretan parte har dezaten;
- eskola-egun bakoitzean gutxienez janari osasungarri bat ematea;
- hezkuntza-materialen hornidura bermatzea, hezkuntza-tresna digitalak, liburuak, uniformeak edo beharrezko beste edozein jantzi barne;
- Haur Hezkuntzako eta lehen haurtzaroa zaintzeko zentroetara garraioa bermatzea, baita ikastetxe gutxienez;
- eskola-jardueretarako sarbide ekitatezko eta inklusiboa bermatzea, ikastetxeek antolatutako bidaietan eta kirol-, jolas- eta kultura-jardueretan parte hartzea barne;
- osasuna sustatzeko eta gaixotasunak prebenitzeko programa eskuragarriak abian jartzea, hartzaile diren haur eta nerabeentzat eta haien familientzat;
- gizarte-etxebizitzetara edo haur eta nerabeen hartzaileei eta haien familiei etxebizitza-laguntzak lehentasunez eta behar bezala eskuratzeko erraztasunak ematea.

Era berean, **zaugarritasun-egoerak** detektatzea eta horiei aurrera egitea da kontua, egoera horietan oinarritzen baitira Europako Haur Bermea eta estrategia hau.

Haur eta nerabeen zaugarritasun-egoeretan, adin-nagusitasunera arte, sartzen dira gizarte-bazterketaren arriskua eta egoera, eta pobrezia bera, eta, hala dagokionean, haur eta nerabeen desabantaila espezifiko hauek hartzen dira kontuan:

- etxerik gabe edo etxebizitzaren arloan gabezia larria jasaten dutenak (bizitegi-bazterketa larrian daudenak);
- ezgaitasunen bat izatea;
- osasun mentaleko arazoak dituztenak;
- jatorri migratzailekoak edo gutxiengo etniko batekoak (bereziki, ijitoen etnia);
- laguntza alternatiboa jasotzen dutenak (batez ere, harrera-zentroetan bizi direnak);
- familia-egoera prekarioetan.

Azken batean, Europako Haur Bermea:

- Estatu kideentzako ekintza-esparru komuna definitzen du, eta zenbait neurri espezifiko ezartzeko finantzaketa eta laguntza teknikoa ematen du; besteak beste, hauek: kalteberatasun-egoeran dauden haur eta nerabeen **identifikazio goiztiarra**, osasun-zerbitzuetara eta kalitatezko hezkuntzara iristea, eragiten dieten erabakietan parte hartzea edo profesionalen prestakuntza.
- Haurtzaroan eta nerabezaroan gertatzen diren desabantailak eta bazterkeriari aurre egiteko Batasunak duen lehen tresna politikoa da. Sarritan, helduaroan errepikatzen dira desabantaila eta bazterkeria horiek, eta Gizarte Eskubideen Europako Zutabearen 11. printzipioa, haurrei eta nerabeei laguntza emateari eta laguntzeari buruzkoa, praktikan jartzen du.

Gainera, Europako Batzordeak ezarri du estatuek Ekintza Plan bat izan dezatela hura ezartzeko. Euskadiren kasuan, Familiei, Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Erakundearteko V. Plana izango da euskal herri-administrazioen plangintza-tresna, oinarri-dokumentu honekin bat etorriko dena.

Europar Batasunean onartutako estatu-planetan identifikatutako oinarrizko elementuak, aztertu ondoren, kontuan hartu dira dokumentu hau egiteko.

3. PREMIEN ETA LEHENTASUNEZKO ERRONKEN DIAGNOSTIKOA

3.1. TESTUINGURU SOZIALAREN ETA POLITIKEN BILAKAERA

Politika unibertsal eta integralak, funtzio hirukoitza dutenak eta eskubideetara bideratuak

Euskadiko Haur Bermearen Estrategiak (EHBE) aldaketa sakonei erantzuten die, hainbat hamarkadatan zehar eragindakoei, haur eta nerabeen, haien eskubide eta gaitasunen pertzepzio sozialean eta haien rol sozialean.

Sozialki, haur eta nerabeak ez dira jada “potentzialak” diren pertsonatzat hartzen, eta hazkundera edo garapena ez dira bizitzaren etapa jakin batekin lotzen. Denok “eraikitzen” ari gara, eta bizitzan zehar ikas dezakegu, rol eta gaitasun berriak zabalduz. Edozein etapatan, eskubide eta betebeharren subjektu eta gizartearen partaide gara, lan-, ekoizpen- edo ugalketa-etapari tradizionalak emandako zentraltasunaren eta gizarte-balioaren aurrean.

Berdintasunak eta ekitateak, euskal gizartea informatzen duten balio gisa, rolen gizarte-atribuzioa eraldatzen dute, generoaren, adinaren edo desgaitasunaren arabera, eta gizarteak haur eta nerabeei buruz duen pertzepzioa, pertsona helduekiko harremanaren terminoei buruz, haien eskubideei buruz, rolei buruz eta gizartean egiten duten ekarpenari buruz duena ere aldatzen dute.

Hautzaroari eta nerabezeroari buruzko politiketan, aldaketa horiek bat datoz sektore publikoaren funtzioetan jarduten duten beste batzuekin.⁴ Horrela, *babesa* ziurtatzeaz gain, politika publikoek *prebentzioa eta sustapena bultzatzen dituzte*. Eta *erreparazioaz* gain, *prestakuntza* bultzatzen dute, haur eta nerabeen eta haien familien aukerak eta giza kapitala eta kapital soziala indartuz, haur eta nerabeen rol berriak sustatzeko, haien parte-hartze soziala eta politikoa barne.

Horrela, eskubideen eta aukera-berdintasunaren ikuspegitik, haurren eta nerabeen politika inbertsiontzen hartzen da. Izan ere, Batzordearen 2013ko otsailaren 20ko Gomendioak jasotzen duen paradigma inbertitzailearen edo estatu inbertitzailearen adierazpenik argiena da: <<*Hautzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea (2013/112/EB)*>>.

Horrela, *politika integralak eratzen dira, eginkizun hirukoitza dutenak, eta unibertsalak*, haur eta nerabe guztiek eskubide guztiak benetan baliatzeko eta beren bizi-proiektuak garatzeko aukerak zabaltzeko. Beren familia, komunitate eta gizarteko eskubide-subjektutzat eta partaidetzat eta kide aktibotzat hartzen dira, beren gaitasunetan eragiten dute eta gizartean eta politikan parte hartzea bultzatzen dute, batez ere elkarriketa zibilaren printzipioaren arabera eragiten dieten politiketan.

Trantsizio-politikak

Hamarkada honi eta hurrengoari begiratzen badiegu, haurren eta familien politika, beste gizarte-politika batzuk bezala, *trantsizio-politikak* dira, euskal gizarteak eta Europak testuinguru globalean jasaten dituzten aldaketa sozial eta demografiko *sakonei* lotuak.

Euskal gizarte gero eta zaharragoa, gaztetzeko beharra dena eta belaunaldien arteko konpromisoa eguneratu behar duena. Euskal gizartea gero eta anitzagoa da, eta, testuinguru berri honetan, berdintasun- eta kohesio-mailei eutsi behar die, eta genero-ikuspegia eta interseksionala bultzatu behar ditu.

Horrenbestez, hautzaroari eta familiei buruzko politikak bat egiten du Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiarekin, bai eta gizarte-kohesioa ziurtatu eta horretan sakontzeko beharrenekin ere, trantsizio sozialeko testuinguru batean eta politiken koherentzia-printzipioan oinarrituta.

Gizartearen zahartzea eta beharrezko gaztetzea, gure garapen ekonomikoa eta lan-merkatuaren beharrak dira, besteak beste, migrazio-fluxu gero eta handiagoen dinamika sortzen ari direnak, eta erantzun berri-tzaileak behar dituztenak euskal gizarteak lortutako gizarte-kohesioaren eta ongizatearen mailari eutsi eta sakontzeko.

Bestalde, desberdintasuna handitzea fenomeno ohizkoa da Mendebaldeko gizarteetan, trantsizio sozial eta demografikoko antzeko prozesuetan baitaude, bai eta gurea bezalako gero eta ongizate-handiagoko testuinguruan ere. Horrela, haurren bermearen eremuan, haurren pobrezia eragin handiagoa du seme-alaba dituzten familia ugariak edo guraso bakarrez osatutako familietan, kasu askotan jatorri migratzaile dutenak, eta haur eta nerabeen eta, beste alde batetik, haurren eta beste adin talde batzuen arteko desberdintasunak areagotzen ditu.

⁴ Ez bakarrik hautzaroari eta nerabezeroari buruzko politiketan. Ibilbide luzeko eraldaketa horiek honako politika hauetatik ere sustatzen dira: emakumeen eta gizonen berdintasun-politiketatik, adinkeriaren aurkako borrokatik, migratzaileen harrera eta inklusiotik edo desgaitasunaren bat duten pertsonen erabateko inklusioaren sustapenetik. Eta, betiere, babesaz gain, autonomia eta autodeterminazioa prebenitzea eta sustatzea barne hartzen dituen ikuspegia hartzea eskatzen dute.

Horregatik guztiagatik, gaur egun ezin da behar bezala aztertu eta jorratu, ez pobrezia eta bazterkeria-
ren errealitatea, ez haren arriskua, ez eta haur eta nerabeen eskubideen aitortza eta egikaritza planteatu
ere, kontuan hartu gabe generoaren, adinaren eta migrazio-fluxuen eragina, edo beste faktore batzuen,
hala nola desgaitasunarena, egungo datuetan eta serie historikoetan, premia berri eta anitzetan, eta haur
eta nerabeei eta haren familiei eman beharreko erantzunak egokitzean.

Testuinguru horretan bermatu behar dira haur eta nerabe guztien eta haien familien eskubideak eta au-
kera-berdintasuna. Horregatik, eta politiken *koherentziaren printzipiotik abiatuta*, beharrezkoa da euskal
gizartearen, aukera-berdintasunaren eta goranzko gizarte-mugikortasunaren ezaugarri den gizarte-kohe-
sioan sakontzea, arreta berezia jarri generoan, adinean, jatorrian edo desgaitasunean eta haien interseksi-
onalitatean.

Trantsizio-politiketan irtenbide berriak bilatu eta finkatzen dira, berrikuntza sozialetik (lankidetzako berri-
kuntza) abiatuta, aldaketan edo eraldaketan dagoen testuinguru batera egokituak. Konponbideak, batzue-
tan, *larrialdi-politiketatik* sortzen dira, COVID-19aren pandemian gertatu zen bezala.

Hala, haur-bermearen arloko gizarte-berrikuntzako jardueren adibide bat da “Aukerak Suspertzen”, saila-
ren eta gizarte-ekimeneko 20 erakunde baino gehiagoren arteko sarearen arteko lankidetzatik abiatuta.
Eskolaz kanpoko hezkuntza indartzeko programa bat da, haur eta nerabe guztiei zuzendua, eta arreta be-
rezia eskaintzen die arrakala digitalaren eraginpean daudenei. Programa hori pandemian jarri zen martxan
eta, ondoren, gerrak desplazatutako Ukrainako haur eta nerabeetara hedatu zen. Programak haur eta ne-
rabeen eta haien familien gaitasunak (linguistikoak, digitalak, ikasteko teknikak...) lortzen laguntzen du, es-
kola-errendimendua eta komunitatean integrazioa hobetzeko.

Horrela, krisi-testuinguruetan sortzen edo indartzen diren beharrei berehala emandako erantzunek (pre-
miazko politikak), hala nola Aukerak Suspertzenek, programa esperimentalak eragin dituzte, eta programa
horiek, gidatu eta ebaluatu ondoren, egonkortu egin dira, eraldatzen ari den gizarte-testuinguru baten pre-
miei ere erantzuteko egokiak direlako (trantsizio-politikak).

3.2. NAZIOARTEKO ARAU- ETA PLANGINTZA-ESPARRUA

EHBERen oinarri diren printzipioak eta kontzeptu-esparrua, Europako Haur Bermeaz gain, nazioarteko tra-
tatu eta plan hauetatik eratortzen dira.

Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa (NBK).

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Orokorrek 1989ko azaroaren 20an aldarrikatu eta onartu zuen, eta haur
eta nerabeen eskubide besterenezinak ezarri zituen, bai eta estatuen, botere publikoen, gurasoen eta gi-
zarte osoaren betebeharrak ere, haur eta nerabeenak barne, guztiekiko errespetua eta gozamina bermat-
zeko, bereizketarik gabe. Lau printzipio hauek ditu: a) diskriminaziorik eza; b) adingabearen interes gore-
naren lehentasuna; c) biziraupenaren eta garapen osoaren bermea; d) eta haurren parte-hartzea.

Bere 54 artikuluek, besteak beste, haur eta nerabeen honako eskubideak garatzen dituzte: indarkeria eta
esplotazio mota guztien aurkako babesa; hezkuntza; ahalik eta osasun mailarik gorena; eta garapen fisiko,
mental, espiritual, moral eta sozialerako bizitza-maila egokia bermatuko duten gizarte politikez baliatu ahal
izatea.

Horietatik, hauek dira EHBERi modu zuzenenean lotutakoak:

- 24. artikulua. Estatu partehartzaileek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, ahalik eta osasun-maila
handienaz gozatzeko eta gaixotasunak tratatzeko eta osasuna birgaitzeko zerbitzuak izateko (...).
- 27. Artikulua. Estatu partehartzaileek aitortzen dute haur guztiek duten eskubidea euren garapen fi-
siko, mental, espiritual, moral eta sozialerako bizitza-maila egokia izateko (...).

- 28. artikulua. Estatu partehartzaileek aitortzen dute haurrek hezkuntzarako duten eskubidea eta, eskubide hori arian-arian egikaritu ahal izateko eta aukera-berdintasuneko baldintzetan, bereziki ezarri beharko dute lehen mailako derrigorrezko eta doako irakaskuntza guztiontzat, eta sustatu egin beharko dute bigarren mailako irakaskuntzaren garapena, forma guztietan (...).
- 29. artikulua. Estatu partehartzaileek adostu dute haurren hezkuntzak haurren nortasuna, trebetasunak eta gaitasun mentala eta fisikoa garatzera bideratuta egon beharko duela, haurrek ahalik eta aukera gehien izan ditzaten (...).
- 30. artikulua. Gutxiengo etnikoak, erlijiosoak edo linguistikoak edo indigena-jatorriko pertsonak dau den estatuetan, gutxiengo horietako haurrei edo haur indigenei ez zaie ukatuko dagokien eskubidea, euren taldeko gainerako kideekin batera, euren kultura-bizitza izateko, euren erlijioa izan eta praktikatzeke, edo euren hizkuntza erabiltzeko.
- 31. artikulua. Estatu alderdiek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, atsedenerako eta aisialdirako, euren adinaren arabera jolaserako eta jolas-jardueretarako eta kultura-bizitzan eta arteetan askatasunez parte hartzeko. Estatu alderdiek errespetatu eta sustatuko dute haurrek duten eskubidea, oso osoan parte hartzeko kultura- eta arte-bizitzan, eta aukera egokiak eskainiko dituzte, berdintasun-baldintzetan, kultura-, arte-, jolas- eta aisialdi-bizitzan parte hartzeko.
- 32. artikulua. Estatu partehartzaileek aitortzen dute haurrek duten eskubidea, esplotazio ekonomikoaren aurka eta edozein lan egitearen aurka babesa izateko, baldin eta lan hori arriskutsua bada edo heziketa oztopatu badezake, edo kaltegarria bada euren osasunarentzat edo garapen fisiko, mental, espiritual, moral edo sozialarentzat (...).

Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH).

Hauek dira Haur Bermearekin lotura zuzenena duten GJHak:

- 1. GJH: Era guztietako pobrezia amaiara ematea mundu osoan.
- 2. GJH: Goseari amaiera ematea.
- 3. GJH: Bizitza osasuntsua bermatzea eta adin guztietako guztientzako ongizatea sustatzea.
- 4. GJH: Hezkuntza inklusiboa, ekitatezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta pertsona guztientzako bizitza osoko ikaskuntza-aukerak sustatzea.
- 5. GJH: Generoen arteko berdintasuna lortzea eta neskatoak eta emakume guztiak ahaldundutzea.
- 10. GJH: Herrialdeen artean eta baitan desberdintasunak murriztea.
- 11. GJH: Hiriak eta giza kokalekuak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezen lortzea.

Gizarte Eskubideen Europako Zutabea

Gizarte-babeserako Europako ereduak bermatzeko eta indartzeko hogeitaz printzipioen inguruan egituratuta, hauek dira haurren bermeari dagokionez garrantzitsuenak:

- *Haur eta nerabeei laguntza eta babesa ematea.* Eskubidea dute haur-hezkuntza eta -laguntza eskuragarriak eta kalitate onekoak izateko, eta pobrezia aurrerako babesa izateko. Egoera zaugarrienetako inguruneetatik datozenek aukera-berdintasuna sustatzeko neurri bereziak hartzeko eskubidea dute.
- *Aukera-berdintasuna.* Edozein dela ere haien generoa, arraza- edo etnia-jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo sexu-joera, pertsona orok du tratua eta aukera-berdintasunerako eskubidea enpleguaren, gizarte-babesaren, hezkuntzaren arloan eta herritarren eskura dauden ondasun eta zerbitzuetarako irispidean. Giza talde gutxietsien aukera-berdintasuna sustatu behar da.

Europar Batasunaren Haurren Eskubideei buruzko Estrategia.

Haurren eta gazteen eskubideak babesteko eta sustatzeko ekintza eta neurri multzo bat da. Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan oinarritzen da, non ezartzen den haur eta nerabe guztiek eskubidea dutela bizitza duina izateko, hezkuntzarako, indarkeriaren eta esplotazioaren aurkako babesa izateko eta gizartean parte hartzeko. Estrategia hiru arlo nagusitan oinarritzen da: babesa, parte-hartzea eta ahalduntzea. Besteak beste, neurri hauek hartzen ditu:

- Indarkeriaren, esplotazioaren eta sexu-abusuaren aurkako babesa bermatzea.
- Eragiten dieten erabakiak hartzen parte har dezaten sustatzea.
- Ahalduntzea, beren eskubideak erabil ditzaten eta haietaz kontziente izan daitezen.
- Hezkuntzarako eta mediku-arretarako sarbidea sustatzea.
- Haurren pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurka egitea.

Batzordearen 2013ko otsailaren 20ko gomendioa: *Haurtzaroan inbertitzea: desabantailen zikloa haustea (2013/112/EB).*

Europako Batzordeak sustatuta, haur eta nerabeen eta gazteen aukerak eta ongizatea hobetu nahi ditu Europa osoan, eta funtsezko hiru arlotan zentratzen da: kalitatezko zerbitzuak eskuratzea, familiei laguntzea eta haurren pobrezia aurka borrokatzea.

Lehen arloan, hezkuntza-, osasun- eta arreta-zerbitzuak eta haurren babes-zerbitzuak eskuratzearen alde egiten du, edozein dela ere haien jatorria edo egoera sozioekonomikoa.

Bigarrenean, lana eta familia bateragarri egitea sustatzen duten politika eta programen garrantzia nabarmentzen da, baita haur eta nerabe bat duten familiei finantza- eta gizarte-laguntza ematea ere. Hirugarrenean, berriro, haurren pobrezia eta gizarte-bazterkeria aurrea hartzeko eta heltzeko neurri eraginkorren beharra nabarmentzen da.

Bere azken helburua haur eta nerabe askok Europa osoan dituzten desabantailen zikloa, edo zirkulua, haustea da, haien ongizatea, aukerarako sarbidea eta gizartean duten parte-hartze aktiboa sustatuz.

Koherentziaz, *gizarte-inbertsioaren paradigma sustatzearen eta haurtzaroko eta nerabezaroko politiketan aplikatzearen aldeko apustua egiten du, lehen haurtzaroan arreta jarritz.* Paradigma horren ezaugarri nagusia prestaketan arreta jartzea da, konponbidean baino gehiago (*preparing rather than repairing*).

Hala, gizarte-inbertsioaren ikuspegia honako politika hauetan oinarritzen da: a) giza kapitala garatzea, haurren zaintza eta hezkuntza goiztiarraren bidez, eta bizitzan zehar prestatzea edo ikastea; b) haren aprobetxamendu efizientea, malgutasuna eta segurtasuna konbinatuz, eta gizarteratzeko maila handiagoak lortzea, tradizioz hartatik kanpo geratu diren taldeen lan-merkatuan sartzearen bidez.

Haur Bermearen kasuan, azken hori gurasoengan zentratzen den helburua da, epe laburrean eta ertainean, haur eta nerabeetan, haien gaikuntzan inbertitzeak lan-merkatuan sartzearen bidez gizarteratzeko etorkizuneko aukerak indartzen dituen heinean.

Gizarte-politiken eremu batean gizarte-estatu inbertitzailearen ikuspegia sartzen bada, horrek eragin argia eta erabakigarria du haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko politiketan; izan ere, politika horiek orain arte herrialde gehienetan izan ez duten nagusitasuna lortzen dute. Haurren ongizatean eta, ondorioz, familien ongizatean inbertitzea da gizarte-estatu inbertitzailearen ardatza, *haurtzaroan oinarritutako gizarte-inbertsioko estrategia bat* defendatuz. Estrategia horren oinarrian dago desberdintasunean eta *bazterketan eragiten duten mekanismoek lehen haurtzaroan eta familietan eragiten dutela.*

Beraz, birbanaketarako, aukera-berdintasunerako eta bazterkeriaren aurkako borrokarako politika eraginkor oro lehen haurtzaroan, eta esparru horretan, familian, oinarritu behar da nagusiki.

Europar Batasuneko goi-bilerako Lehendakartzaren Kontseiluaren haurren zaintza-egituren hobekuntzari buruzko ondorioak

Bartzelonako goi-bileran, “haurren zaintzarako egituren hobekuntza” Europar Batasunaren helburu zehatz gisa hartu zen, eta, harrezkero, 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzako arreta-sareen hedapena ezartzen ari da. Helburu hori, lan-merkatuan genero-berdintasuna sustatzera bideratuta dagoen izaera handiagoko beste batean txertatuta, hogeita hamabigarren atalean ezarri zen:

<<32. *Egungo enplegu-politikei dagokienez, besteak beste:*

.... *Estatu kideek kendu egin beharko dituzte emakumeen eskulanaren parte-hartzea gutxiesten duten elementuak, eta, haurren zainketa-zerbitzuen eskaria kontuan hartuta, eta laguntza-eredu nazionalekin bat etorritik, 2010erako haurrak zaintzeko zerbitzuak ematen saiatu beharko dute, gutxienez hiru urtetik nahitazko eskolatzeko-adinera bitarteko haurren % 90ri eta gutxienez hiru urtetik beherako haurren % 33ri>>.*

3.3. HAURRAK ETA NERABEAK EUSKADIN

Euskadiko Haur Bermearen Estrategiak ikuspegi hauek hartzen du:

- Eskubideen eta aukera-berdintasunaren ikuspegia, haur eta nerabeen beharrei osotasunean heltzea eta eskubideetarako sarbide eraginkorra lortzea helburu duena: “Haur eta nerabe guztientzat, eskubide guztiak”, Europako Haur Bermea ezartzen duen Kontseiluaren Gomendioarekin bat etorritik.
- Ikuspegi multidimentsionala edo aniztuna, hainbat faktoreen arteko elkarrekintzaz jabetuta: pobrezia, desberdintasuna eta bazterketa, familien errentaren eta hazkuntzaren, elikaduraren, osasunaren, hezkuntzaren, aisiarako eta kulturarako irispidearen edo etxebizitzaren kostuaren arteko erlazioa. Horiek guztiak funtsezko faktoreak dira aukera-berdintasunaren mesedetan eta eskubide, objektibo edo subjektibo, lotuta.

Eskubideen eta faktore anitzeko ikuspegi integral horretatik, haur eta nerabeek Euskadin dituzten ezaugarri soziodemografikoei buruzko datuak jasotzen dira jarraian, eta, ondoren, arlo edo faktore bakoitzari heltzen zaio. Ezaugarri soziodemografikoei buruzko datuek estrategiaren diseinuan kontuan hartu beharreko pertsona eta familia hartzaileen kopurua (kuantitatiboa) eta profila (kualitatiboa) eraldatzea dakarte.

3.3.1. Testuinguru sozial eta demografikoaren eraldaketa

Haur eta nerabe biztanleria egonkortu da, jaiotza-tasaren beherakadari eutsi egiten zaio eta atzeritik datozen haur eta nerabeen ehunekoa handitu egiten da, familia-motak dibertsifikatuz.

- 2023ko urtarilaren 1ean, EINaren populazio-zifren eta errolda demografikoen arabera (1981-2023), Euskadiko 18 urtetik beherako biztanleak 350.318 ziren (% 15,8), 1981ean 660.092 ziren guztizkoaren % 30,9 izanik.

Serie historikoak gorakada txiki bat izan zuen 2006an, 315.874 (% 14,8) izanik. Hala ere, Eustaten biztanleria-proiekzioen arabera (2026-2031), beste beherakada bat espero da: 2031n 319.600 egongo dira, eta biztanleriaren guztizkoaren % 14,4 izanik. Hau da, serie historikoko baxuena (1981-2031).

- Haur eta nerabeen sexuaren eta adinaren arabera banaketari dagokionez, EINaren 2023ko urteko Biztanleria Erroldaren arabera, 0 eta 5 urte bitarteko biztanleak % 26,6 ziren, 6 eta 11 urte artekoak % 35,3 eta 12 eta 17 urte artekoak % 38,1. Sexuari dagokionez, oreka dago: % 48,5 neskak dira eta % 51,5 mutilak.
- Bestalde, jaiotza-tasa eta, neurri txikiagoan, ugalkortasun-tasa murriztu egin dira 2008az geroztik. Eustaten *fenomeno demografikoak aztertzekeo adierazle*en arabera, jaiotza-tasa gordina etengabe jaitsi da:

2008an 1.000 biztanleko 9,9 jaiotza izan ziren, eta 2022an 6,2. Azken hori izan da 1975ean hasitako serieko tasarik txikiena, 19,1ekin.

- Haur eta nerabeen ehunekoa egonkortzearekin batera, eta jaiotza-tasa eta ugalkortasuna murriztearekin batera, Euskadiko haurren egoera soziodemografikoaren ezaugarri nagusia da etorkin jatorriko haur eta nerabeen pisu erlatiboa handitzea.

Hala, 2022ko Errolda Jarraituaren Estatistikaren arabera, haur eta nerabeen % 90,2 Euskadin jaio zen, % 6,3 Estatuko gainerako lurraldeetan eta % 3,5 atzerrian, % 50,5 Ameriketara eta % 20 Afrikan. Herrialde ordezkatuenak Maroko (% 11,8) eta Kolonbia (% 10,9) izan ziren, eta ondoren Amerikako beste herrialde batzuk.

- Era berean, Eustaten Jaiotzen Estatistikaren arabera, Euskadin atzerriko nazionalitatea duen ama baten haur eta nerabeen ehunekoa 2003an % 5,6koa izatetik 2022an % 29,9koa izatera igaro zen.
- Familia-moten dibertsitateari dagokionez, Euskadiko etxe/familiei eta biztanleriari buruzko datuen arabera, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren Estatistika Organo Espezifikoaren familia eta etxe-motaren arabera, Eustaten arabera, 2019an:
 - a) Seme-alabak dituzten familia nuklearrak etxe guztien % 33,4 dira (305.140 etxe eta 1.121.763 pertsona), eta haietatik, mendeko seme-alabak dituztenak (234.582 eta 896.406 pertsona) eta menpekoak ez dituztenak.
 - b) Guraso bakarrekoak dira etxe guztien % 9,2 (84.233 etxe) eta pertsona guztien % 9,5 (209.260 pertsona), honela banatuta: a) mendeko seme-alabak dituen ezkon-ostekoak (33.719 etxe eta 88.388 pertsona) eta gabe (28.011 etxe eta 64.787 familia); b) gurasobakarra mendeko seme-alabekin (15.440 eta 40.306 familia) eta gabe (7.062 etxe eta 16.139).
 - c) Etxe polinuklearrak % 2,4 ziren (21.808 etxe eta 109.720 pertsona).

Mendeko *seme-alabak dituzten etxe* nuklearren eta guraso bakarreko etxeen batura guztizkoaren % 31,1 da, eta, termino absolutuetan, 283.741 etxe eta 1.025.100 pertsona.

Bestalde, Eustaten Jaiotzen Estatistikaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren ametatik bizirik jaio eta gutxienez hirugarren seme-alaba diren pertsonen kopurua 1.900 baino gehiago da 2016tik, nahiz eta 2017an (1.839), 2022an (1.859) eta 2023an (1.862) gutxiago izan.

3.3.2. Hazkundearen kostua

Testuinguru inflazionista batean, hazkundearen kostua eta errenta erabilgarriarekiko duen distantzia handitu egin da, eta eragin handiagoa, zein anitza, izan du seme-alabak ardurapean dituzten familiengan.

Eustaten datuen arabera, prezioen igoeraren eragina bereziki handia izan da 2021etik hona, ehuneko 15,7 puntuko aldaketa izan baitu 2021eko urtariletik 2023ko abendura bitartean, eta 2,9 puntuko aldaketa izan da 2024ko urtariletik abuztura bitartean.

Testuinguru inflazionista horrek handitu egiten du hazkundearen kostuaren eta errenta erabilgarriaren arteko distantzia, baina eragin ezberdina du familetan, handiagoa izanik pobrezia-atalasearen edo pobrezia-arriskuaren azpitik daudenetan.

Pobrezia-aren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestaren arabera, 2022an, bi seme-alaba dituzten bikoteen pobrezia-atalasea hilean 1.394 eurokoa zen; bi seme-alaba dituzten guraso bakarreko etxeetan, berriz, 1.062 eurokoa. Eta pobrezia-aren arrisku-atalasea, 2.092 eta 1.594, hurrenez hurren.

3.3.3. Osasuna

Haur eta nerabeen osasun-egoera ona da, nahiz eta osasun-adierazle batzuk sozialki modu desberdinean banatzen diren

EAEko herritarren osasun-egoera ona da, baina osasunaren zenbait gizarte-determinatzaileek irudi ez hain positiboa ematen dute. Bereziki, egoera sozioekonomiko txarragoa duten familietan gertatzen da hori, eta esan daiteke osasun-adierazle batzuk sozialki modu desberdinean banatzen direla.

Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) 1946ko Konstituzio Gutunean onartutako *eredu biopsikosoziala* kontuan hartuta, Euskadiko haur eta nerabeen osasun-egoeraren alderdi hauek azpimarratu behar dira.

- *Bizitzako lehen 1.000 egunak* (Victoria, C.G., et al, 2008) aldi kritiko gisa definitu dira, jaiotze inguruko garaitik osasunean eragina duten kanpoko eta ingurune faktoreen ondorioz⁵.

Gure testuinguruan egindako ikerketa batek (González-Rábago, Y. et al., 2019) agerian utzi zuen, alde batetik, Euskadin garaia baino lehen jaiotako haurren ehunekoa murriztu egiten dela gurasoen ikasketak-maila handitu ahala. Bestalde, jaiotzean pisu txikia duten jaiotzen ehunekoa ere baxuagoa da goi-mailako ikasketak dituzten gurasoen artean.

Osasuna bizitzako lehen urteetan ere funtsezkoa da zahartzarora arte osasun-egoeran eragina duten bizi-ohitura osasungarriak hartzeko (Gonzalez-Rabago, Y. et al, 2019).

- Eustaten *Heriotzen Estatistikak* erakusten du bizitzaren hasierako hilkortasun-adierazleak oso maila txikietan mantendu direla azken bi hamarkadetan, nahiz eta, hiru urtez beheraka egin ondoren, 2022an *Jaioberrien Heriotza-tasa* (2,2 1.000 biztanleko) eta *Heriotza-tasa bost urtetik beherakoan artean* (3,59 1.000 biztanleko) apur bat igo zen.

2022an, 20 urte baino gutxiagoko lau pertsonak bere buruaz beste egin zuten, eta azken bi hamarkadetan bostetik behera mantendu zen kopurua, 2000. urtean izan ezik, orduan zazpi suizidio izan baitziren.

EAEko Osasun Inkesta (EAEI), 2023koak, 14 urtetik beherako pertsonen adin-tartean istripuen prebalentzia erakusten du, eta duela hamarkada bat % 10 inguru izatetik (2013an % 10,2 eta 2018an % 10,8) 2023an % 6,7ra igaro da. Gaur egun, prebalentzia handiagoa da mutiletan (% 7,8) nesketan (% 5,6) baino.

Bestalde, Segurtasun Sailaren *Trafiko Istripuen* Estatistikak argitaratutako datuen arabera, 2023an gutxi 398 14 urtetik beherako adingabe izan ziren trafiko-istripuetan inplikaturak (361 2022an), eta horietako 8 larri zauritu ziren. Datuek erakusten dutenez, azken hamarkadan murriztu egin da hildakoen istripu-tasa.

- *Health Behaviour in School-Aged Children* (HBSC)⁶ estudioak eskaintzen duen 2006-2018 epealdiari dagozkion haur eta nerabeek eskola-adinean dituzten osasunaren autobalorazioaren bilakaerari buruzko datuek erakusten dutenez, oro har, Euskadiko haur eta nerabeek oso modu positiboan baloratzen dute beren osasun-egoera.

Zehazki, 11 eta 18 urte bitarteko hamar pertsonatik bederatzik uste zuten osasun bikaina (% 39,3) edo ona (% 51,2) zutela, eta % 9,5ek uste zuten erdipurdikoa edo pobrea zela, eta osasun-egoera okerragoa

⁵ Bizitzako lehen 1.000 egunen garrantzia zabaldu zuen (Victoria, C.G. et al., 2008)-k: sorkuntzatik jaiotza arterako 270 egun, gehi lehen urteko 365 egunak eta bigarren urteko beste 365.

- Erronka demografikoaren euskal politika publikoetan zentralitate berri bat izatea (gizartea gaztetzea eta bizitasun luzeago baten erronka eta aukeretara egokitzea), gazteen proiektu pertsonalak eta familiarak eta jaiotza-tasa babestea barne, hainbat neurriren bidez.
- 0-2 urteko etaparen doakotasuna, Haurreskolak Partzuergoaren bidez, eta hezkuntzan ekitate bermatzeko aurrerapen garrantzitsuak, bai arau-arloan, bai Hezkuntzari buruzko Lege berriarekin, bai kudeaketari dagokionez. Horretarako, Hezkuntza Aniztasuneko eta Inklusioko Zuzendaritza eratu da, bai eta aniztasunari heltzeko, hezkuntza-premia bereziei erantzuteko eta eskola inklusiboa eraikitzeko plan eta jarduera ugari garatu ere.

Horien artean honako hauek azpimarra daitezke: a) ikasle ijitoentzako hezkuntza-jardueretarako laguntzak; b) kulturartekotasuna sustatzeko eta hizkuntza indartzeko programak (EUSLE programa ikastetxe publikoetan eta diru-laguntzak ikasle etorkinentzako kulturartekotasuna sustatzeko programak eta ikastetxe pribatu itunduetan sartu berri diren ikasleen hizkuntza indartzeko programak garatzeko); c) Bidelaguna laguntza-programa eskola-ordutegitik kanpo; d) berariazko hezkuntza-indargarriko programak; e) curriculum desberdineko programak; f) eta eskolatze osagarriko programak.

¹⁰ Familien eta Haurren Aldeko Euskal Itunaren arabera, paradigma berri honen ezaugarri nagusia enfasia aldatzea da, familia-, hezkuntza- eta genero-berdintasunaren politikak kontuan hartuta, besteak beste, garapen sozial eta ekonomikorako funtsezko elementu gisa. Hala, ikuspegi horrek hainbat zerbitzutan jartzen du arreta: haurrengan inbertitzea, aukera-berdintasunaren eta gizarte-mugikortasunaren maila jakin bat ahalbidetzen duten baldintzak sortzea, emantzipazio-prozesuak eta helduarora igarotzeko prozesuak erraztea, seme-alabak dituzten familiei laguntzea eta emakumeei enplegua lortzen laguntzea. Alderdi horiek guztiek eragina dute gaur egungo eta etorkizuneko garapen sozial eta ekonomikoan.

- Pandemiaren eragin sozialari erantzunez, zaugarritasun-egoeran dauden haur eta nerabeei laguntzeko programa eta zerbitzuen belaunaldi berri bat garatzea, Hitzartuz, *Loturak edo Aukerak Susper-tzen* programak sendotzearekin bat, eta haur-bermearekin lotutako kultura inklusiboaren lerroa bul-tzatzea aurreikusita dago.
- EAEko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan aurreikusitako hedapena babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden haur eta nerabeen arreta-zerbitzuetan, eta familia zaintzaileentzako laguntzen ga-rapena *bizitzan* zehar, Familia Zaintzaileei Laguntzeko Estrategia Soziosanitarioaren arabera.

Politiken esparru horretan, urteko gastu arrunta adierazten da jarraian, haurrei eta nerabeei zuzendutako politiketan, bai eta haurrei eta nerabeei buruzko politika publikoen elementu nagusietan ere, honako hel-buru hauek dituztenak: a) haur-pobrezia eta haren ondorioak; b) haurtzaroko desberdintasuna; eta c) hau-rreri eta gazteen eta gainerako biztanleen arteko desberdintasuna.

a) *Euskal administrazio publikoek 3.800 milioi euro baino gehiago gastatzen dituzte urtean haur eta ne-rabeentzako politiketan*

- Gastu horren zatirik handiena euskal hezkuntza-sistemari dagokio. Hala, Eustaten Hezkuntza Kontua-ren arabera, 2021ean, unibertsitatez kanpoko hezkuntzako zerbitzuen gastu osoa 2.929 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik 2.660 euskal administrazio publikoek finantzatu zituzten.

Bestalde, Eustaten *Gizarte Babesaren Kontuaren* datuen arabera, 2000 eta 2021 urteen artean, familia eta haurrentzako gizarte-babeseko gastua 157 milioi eurotik 769 milioi eurora igaro zen, gizarte-babe-seko guztizko gastuaren % 2,1etik % 3,53ra eta BPGrekiko % 0,37tik % 0,98ra. Gainera, Foru Aldundiek 317 milioi euro inguruko gastu fiskala egiten dute urtero ondorengoengatikoen kenkarietan.

Azken batean, hezkuntzako gastu publikoa, gizarte-babeseko gastua eta zerga-onuren bidez kendutako diru-sarrerak kontuan hartuta, 2021eko batura 3.800 milioi euro ingurukoa izan liteke.

Kopuru horretatik, % 74 hezkuntza gastuari dagokio, % 10 kenkari fiskalei, % 7,3 Gizarte Segurantzako gastuari (amatasun eta aitatasun bajak, batez ere), % 5,2 Gizarte Zerbitzuetako gastuari eta % 1,5 Eusko Jaurlaritzaren familia prestazioei.

- Gertatzen ari den jauzi berriaren ondorioz, Europar Batasuneko batez bestekoarekin bateratzen ari da pixkanaka; izan ere, Eurostaten datuen arabera, familia eta haurrentzako gizarte-babeseko gastua gi-zarte-babeseko prestazioen % 8,3koa zen 2021ean, eta BPGren % 2,4koa.

Bestalde, gastu hori nabarmen ari da hazten, eta horrek adierazten duen ehunekoa nabarmen handi-tuko da datozen urteetan. Are gehiago, jarraian aipatuko diren programak eta prestazioak aplikatu ahala, eta 3.6 atalean deskribatutako araudia, planak eta akordioak hedatu ahala.

- Gainera, haurrentzako politika publikoetan egiten den gastua familia eta haurrentzako gizarte-babe-seko gastuan sartzen diren kontzeptuetatik harago doa, eta beharrezkoa da horiek zehazteko eta ho-rien jarraipena egiteko metodoak hobetzea. Gastu hori, gaur egun, ez da beti erregistratzen, besteak beste, hainbat partidatan banatuta egoteagatik, erakunde bakoitzeko hainbat sailetakoak eta oraindik ere haurrei eta nerabeei buruzko informazio-sistema bakar bati lotuta ez daudenak.

Ildo horretan, Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legearen 308. artikulua ezartzen du Haur eta Nerabeei buruzko Informazioko Euskal Sistemak, besteak beste, adierazleak garatuko dituela eus-kal administrazio publikoen mailetan haurtzaroan egindako inbertsioa ebaluatzeko, eta, Eusko Jaur-laritzaz eta foru-aldundiez gain, udal-maila ere aintzat hartuko duela.

b) *EAEko haurren % 10 Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) jasotzen duten etxeetan bizi da, eta hileko batez besteko zenbatekoa 820 eurokoa da.*

- Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak (GDBES) nabarmen murrizten ditu haur eta nerabeak ardurapean dituzten familien pobrezia-tasak eta egoera horien intentsitatea, oso nabarmen murrizten baitu familien diru-sarrera propioen eta pobrezia-atalasearen arteko distantzia.

PGDIren datuen arabera, kotizaziopeko pentsioak ez diren transferentzia sozialek pobrezia larriko egoerak % 55 murrizten dituzte biztanle guztientzat, % 56 65 urtetik beherakoentzat eta % 46 haur eta nerabeentzat. Haur eta nerabeetan pobrezia larriko egoerak % 15,6tik % 8,3ra pasatzen dira transferentzia sozialak egiten direnean, eta 7,3 puntu jaisten dira. Biztanleria osoarentzat tasak % 11,0tik % 4,9ra pasatzen dira, 6,1 puntu jaitsiz.

- 2022an, 15 urtetik beherako ia 30.000 pertsona izan ziren diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunak. Prestazio horren onuradun eta titular guztien % 25,2, eta adin horretako biztanleen % 10 Euskadin. Haur eta nerabeen ardurapeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek hilerio jasotzen duten batez besteko zenbatekoa 820 euro ingurukoa izan zen 2021ean.

Era berean, Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Estatistikaren arabera, 2022an, laguntza horiek 22.000 familia-unitate inguruk jasotzen zituzten, beren ardurapean seme-alabak zituztenak. Unitate onuradunen % 33 ziren, eta banatutako zenbatekoaren % 31a jasotzen zuten.

Gainera, Lanbideren datuen arabera, 2023ko azaroan, EAEko 11.824 etxek Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren (IMV) barruan zegoen Haurrentzako Laguntza Osagarria (CAPI) jasotzen zuten. Horietatik, 2.686k laguntza osagarria bakarrik jasotzen zuten, hau da, ez zituzten betetzen IMVra sartzeko baldintzak, baina bai CAPIra sartzeko baldintzak.

- Ikuspegi kualitatibo batetik, EHBE egiteko kontsulta egin zaien pertsonetako batzuek GDBESek haur eta nerabeei dagokienez dituen muga batzuk aipatzen dituzte. Horien artean, nabarmenezkoa da haur eta nerabeen bat ardurapean duten familia-unitateetan zenbatekoak kobratzeari uztea, horien erantzukizunetik kanpo geratzen diren arrazoiengatik, eta pertsona batzuk ez direla prestazioak jasotzera iristen, ez dituztelako betetzen sarrera-baldintzak edo bestelako arrazoiak.

c) *Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzen kopuruak eta gastuak gora egin du serie historikoan zehar, eta, aldi berean, jaiotza-tasaren murrizketara egokitu da.*

- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen likidazioaren arabera, 2013 eta 2021 urteen artean, Familia eta Haurtzaroko Zuzendaritzak kudeatzen duen familientzako transferentzien gastua 37 milioi eurotik 50,3 milioi eurora pasa da.

- Bestalde, Familia eta Haurren Zuzendaritzaren datuen arabera, 2021ean, Euskadiko haur eta nerabeen % 8 inguruk Eusko Jaurlaritzaren familia-prestazioen bat jasotzen zuen. Hiru lagunetatik bat ardurapean hiru seme-alaba edo gehiago dituzten familientzat izan zen, eta batez besteko zenbatekoa urtean 800 euro ingurukoa izan zen. Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Beharrei buruzko Inkestaren arabera, 2022an, 25.000 etxek baino gehiagok erabili zuten familiei laguntzeko neurrietako bat, gutxienez, *azken 12 hilabeteetan* (seme-alabengatik laguntzak barne). Datu hori, berriz ere, nabarmen haziko da ezarritako laguntza berriekin.

- Hala, seme-alabak dituzten familientzako laguntzei buruzko otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuak ezarritzen du hilean 200 euroko laguntza, haur guztiek 3 urte bete arte, eta, hirugarren eta hurrengo seme-alaben kasuan, hilean 100 euroko laguntza gehigarria, 3 urtetik 7 urtera arte. Zenbatekoak bikoiztu egingo dira adingabeak desgaitasunen bat badu.

Prestazio ekonomiko horrek 26.879.200 euroko gastua eragin zuen 2022an, 98.270.000 eurokoa izan zen 2023an, eta 117.569.600 eurokoa da 2024ko aurrekontuetan, eta 30 milioi euro batzen zaizkie adiskidetze-neurrietan. Guztira, 150 milioi inguru urtean, babes sozialeko gastuari familiaren eta haurren artean gehituta.

d) Prebentzioa eta arreta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik (GZES)

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karterari buruzko 155/2015 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera, Udalek, Foru-Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzte babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden haur eta nerabeei ematen dizkioten zerbitzuak.

- 2011 eta 2019 artean, plangintza estrategikoaren datuak kontuan hartuta, haurrentzako eta nerabe-entzako esku-hartze zerbitzu guztiak handitu ziren, bereziki lehen mailako arretako gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta arreta goiztiarra. Zerbitzu horien urteko gastu arrunta 140 milioi eurotik gorakoa izan zen, eta GZESren Zorroko zerbitzu hauek hartu ziren kontuan: 1.3 (babesik eza, bazterketarik ez), 2.4.4, 2.7.3.1, 2.7.4, 2.7.6.1, 2.7.6.2, 2.7.1.1 eta 2.7.3.2.
- Foru Aldundien datuen arabera, 2022/12/31n, haur eta nerabeen 2.260 familia-harreran (783) edo egoitza-harreran (1.476) zeuden. Horrek esan nahi du 1.000 haur eta nerabeko 6,4 harrerako ratioa dagoela.
- Eusko Jaurlaritzaren eskumeneko zerbitzuei dagokienez, 2023an, haurrak eta nerabeak zaintzeko telefono-zerbitzuak, Zeuk Esan-ek, ia 700 (697) haur eta nerabeei eman zion arreta, eta horietatik % 72 16 eta 18 urte bitarteko pertsonen egindako 12.480 dei izan ziren. Familia-bitartekaritzako zerbitzua 16.000 lagunek baino gehiagok erabili zuten, eta 800 familia inguruk erabili zituzten familia-elkargu-neak.

e) Hezkuntza-inklusioa eta hezkuntza-premia bereziei erantzutea

- 2019/2020 ikasturtean Euskadin 180.000 beka inguru eman ziren. Aurrekontu gehiena jantoki beketara (27,8 milioi euro) eta laguntza materialera (8,7 milioi) bideratu zen.
- 2021/2022 ikasturtean, unibertsitateaz kanpoko 110.000 ikaslek baino gehiagok jaso zuten Euskadiko Administrazio Publikoak emandako beka edo laguntzaren bat. Onuradunen % 63,8 ikastetxe publikoetakoak ziren eta % 36,2 itunpeko ikastetxeetakoak. Emandako beken zenbatekoa 48 milioi euro ingurukoa izan zen. Ikastetxe publikoetako ikasleek hezkuntza-beketarako partida ekonomikoaren bi heren inguru jaso zituzten, eta % 40 inguru Lehen Hezkuntzako ikasleentzat izan zen.
- 2023an, Haurreskolak Partzuergoaren doako 8.792 plaza zeuden 0-2 urteko hezkuntza-etaparako, eta udalentsako 10 milioi euroko laguntza-lerro bat aurreikusi da. Hori dela eta, bi plaza inguru eskainiko dira adin-tarte horretako 10 haur bakoitzeko.

f) Eskolaz kanpoko hezkuntza eta kultura indartzea, baita hezkuntza-aisialdiko eskaintza ere.

- Aukerak Suspertzen programaren garapenak eta, eskolaz kanpoko hezkuntza indartzeko programa horren ildotik, kultura inklusiboko ekimen bat abian jartzeak, kultura indartzera bideratua, haurren bermeari lotuta daude.

Bestalde, Astialdi Sarea eta Astialdi Foroarekin Gazteriaren Zuzendaritzak abian jarritako Hezkuntza Astialdia Indartzeko Estrategia aisialdi eta astialdi hezitzailearen eskaintza, ekimen publiko eta sozialekoa, eta egoera zaurgarritasunean dagoen haur eta nerabeen sarbidea indartzeko bitartekoa da.

3.5. POLITIKA PUBLIKOEN ESPARRU BERRIA

Aurreko orrialdeetan, haur eta nerabeen eskubideak eta ongizatea bermatzera bideratutako euskal politika publikoen bilakaerari eta irismenari buruzko datu nagusiak jasotzen dira. Hala ere, Euskadin berriki garatu den politika publikoen esparru berria partzialki baino ez dute islatzen datuek.

Esparru horrek egoera oso desberdina eskatzen du haurtzaro eta haur kalteberei buruzko politikei dagokienez, eta honako hauek inplikatzeko dituzten arauak, planak eta estrategiak onartzean zehazten da:

- haur eta nerabeei eta seme-alabak dituzten familiei aitortutako eskubideak zabaltzea;
- hazkuntza laguntzeko hainbat mekanismo artikulatzea;
- ekintza positiboko politikak, programak eta neurriak garatzea, haur eta nerabe guztiek beren familien ekonomia-, hezkuntza- edo kultura-baliabideetatik kanpo eskubideak benetan balia ditzaten sustatzera bideratutakoak.

Arau-aurrerapenak

Hona hemen haur eta nerabeen eskubideei zuzenean eragiten dieten arau-aldaketa nagusiak.

Haur eta Nerabeen otsailaren 15eko 2/2024 Legea onestea, parlamentuaren adostasun zabalarekin eta hiru helbururekin:

- EAEn bizi diren edo dauden haur eta nerabe guztiei ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubideak eta askatasunen erabilera bermatzea.
- Botere publikoek ekintza publikoaren eremu sektorial desberdinetan garatu behar dituzten ekintzak zehaztea, haien arteko erantzunkidetasunarekin eta koherentziarekin, aurreko zenbakian ezarritako helburua lortzeko.
- Sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketa guztiei dagozkien jardun-printzipioak eta esku-men-esparrua definitzea, bai eta koordinazio-, lankidetzak- eta partaidetza-egiturak ere.

Legeak erreferentzia-esparru juridiko berri bat ezartzen du, eta nabarmen egiten du aurrera haur eta nerabeak guztiek eskubideak modu eraginkorrean balia ditzaten aitortzean eta sustatzean, eremu guztietan (hezkuntzan, osasunean, familian, gizartean, arlo judizialean, etab.), esparru publikoan zein pribatuan.

Hala egiten du, babesa ziurtatuz eta, gainera, bizi-proiektua bera garatzeko prebentzioa, sustapena eta prestakuntza bultzatuz, bai eta hura konprometitzen duten egoerak konponduz ere.

Haur eta nerabeen eskubideak egituratzen dituen legea da, eta haurrak eta nerabeak eremu material autonomo gisa aitortzen eta finkatzen ditu, izaera zeharkakoa baitu batez ere. Arau horrek, beraz, hainbat alderdi aurkezten ditu, eta alderdi horiek bereziki lotzen dute hainbat eskumen-eremurekin (gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, diru-sarrerak bermatzea, kultura, aisia eta denbora libre, justizia...), eta horiekin koordinatu behar da, ezinbestean, haurren eta familien sektore-politika, oro har, eta, bereziki, haur-bermearen eremuan.

Europako eta nazioarteko estandar, postulatu eta printzipioekin koherente izanik, legeak aurrera egiten du haur eta nerabeak eskubideen titular gisa aitortzean, eta, gainera, babesa merezi dute. Eta bere babesa bermatzeko modurik onena, sozialki eta juridikoki, bizitzako lehen etapetatik autonomia sustatzea da, bai eta bere eskubideen egikaritzea eta gozatzea errazteko eta bermatzeko behar diren baldintzak bultzatzea eta sustatzea ere, bai eta garapen fisiko eta psikologikoa ere, laguntzetan ekitatea izanik eta arlo emozionala, kognitiboa, soziala eta afektibo-sexuala barne, modu oso eta harmonikoan.

Abenduaren 21eko 17/2023 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena, eskola inklusibo bate-rako oinarriak ezartzen dituena, non ikasle guztiek kalitateko hezkuntza jasotzeko eta beren bizitzarako gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera izango duten. Lege horren printzipioen artean inklusioa eta ekitatea aipatzen dira, aukera-berdintasunaren berme diren aldetik.

Horretarako, besteak beste, legeak funts publikoekin finantzatutako ikastetxe guztietan hezkuntzaren do-akotasuna ezartzen du, bai eta doakotasunari lotutako bermeen inguruko neurri garrantzitsuak ere, eragin-kortasuna lortzeko eta ezberdintasunak saihesteko.

Era berean, ikasleak sartu eta onartzeko berme-mekanismo batzuk aurreikusten ditu, eskolatze inklusibo eta orekatu baterako, bizikidetza eta gizarte-kohesio handiagoa sustatzen duena. Eta Hezkuntza-komplexu-tasunaren Indizea sartzen du. Indize horrek aukera ematen du jakiteko zein ikastetxek lan egiten duten baldintza hobeeetan, haien beharrak zehatzago definitzeko eta eskaintzen zaizkien baliabideak doitzeko, Euskal Hezkuntza Sistemaren ekitatea hobetuz.

Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea onartzea, besteak beste, diru-sarrerak bermatzeko euskal politikaren haurtzaroari buruzko ikuspegi familiar eta la-gunkoiaren aplikazioan sakontzea eta, berariaz, haurren pobrezia aurre egiteko eta gizarte-bazterkeriaren belaunaldien arteko transmisioari aurre egiteko gaitasuna handitzea.

Ildo horretan, legeak babes ekonomikoa hobetzen die pobrezia egoeran dauden seme-alabak dituzten fa-miliei, eta prestazio hori eskuratzeko aukerak zabaltzen dizkie haur eta nerabeen ardurapean dauden fa-milia-unitateei. Horretarako: a) aurreko errolatze-aldia hiru urtetik bi urtera murriztuz beren ardurapeko seme-alabak dituzten bizikidetza-unitateentzat; b) bizikidetza-unitatean dauden haur eta nerabe guztiei aplikatzen zaien oinarrizko zenbatekoaren % 30eko osagarria sartuz; c) oinarrizko zenbatekoaren % 25eko osagarri gehigarria ezarriz guraso bakarreko unitateentzat.

Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera (IMV) ezartzen duen 19/2021 Legea onartzea; lege horrek *haurrentzako laguntza-osagarria* sartu zuen, eta hilero 50 eta 70 euro arteko zenbatekoa izango du, dagokion pertsona-ren adinaren arabera. Izan ere, haur-prestazio berri bat ematen da, izan ere, pobrezia-egoera bizi duten pertsonen zuzendutako prestazio baten esparruan (IMV, adibidez), IMVra sartzeko baremoaren % 300 ezar-tzen da gehieneko muga gisa, hau da, 33.900 euroko gehieneko diru-sarrera norberaren ardurapean bi seme-alaba dituzten bikoteentzat.

Guraso-baimenak hedatzea, ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren eta abenduaren 19ko 7/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez.

Araudi berriak barnean hartzen du edoskitze-baimena zabaltzea, aldeztu aurreko murrizketak kenduta, eta ordaindu gabeko guraso-baimena ezartzen du, seme-alaba edo hartutako adingabea zaintzeko, zortzi urte artekoa, gehienek zortzi astekoa, besterenezina eta malgutasunez baliatu ahal izango dena. Era berean, bigarren graduako senideak edo bizikideak zaintzeko bost eguneko baimen ordainduak ezarri ditu, eta lau egunekoak aurreikusi ezin diren familia-larrialdietarako.

Seme-alabak dituzten familientzako laguntzak bultzatzea. Adierazi den bezala, seme-alabak dituzten fami-lientzako laguntzei buruzko otsailaren 21eko 27/2023 Dekretuak ezartzen du hilean 200 euroko laguntza, haurrak hiru urte bete arte, eta, hirugarren edo hurrengo seme-alaben kasuan, 100 euro gehiago, hiru ur-tetik zazpi urte bete arte. Zenbatekoak bikoiztu egingo dira desgaitasuna duten seme-alabentzat. Gainera, familia ugarietan edo guraso bakarreko familietan haurrak 10 urte bete arte luzatzea aurreikusi da.

EAEn bultzatutako itun, plan eta estrategiei lotutako aurrerapenak

Arau-aurrerapen horiekin batera, hainbat itun, plan eta estrategiek esparru filosofiko eta kontzeptuala sen-dotu dute, Europako Haur Bermearen eduki eta orientabideekin bat datorrena eta EHBK erantzuten diona. Hauek dira garrantzitsuenak.

Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna. Euskal erakundeetako ordezkariak 2018an onartu zuten, eta azken urteetan egindako ahaleginak egiaztatu ditu. Aldi berean, seme-alabak dituzten familiei laguntzeko politiketan dagoen hobekuntza-marjina adierazten du, beste talde edo behar sozial batzuei eta Europako beste herrialde batzuei zuzendutako politikei dagokienez.

Ilido horretan, esan bezala, abian jarri zenetik jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa izan da politiketan. Jauzi koherentea ongizate- eta zaintza-ereduaren eraldaketarekin, Mediterraneoko ongizate-eredutik eredu propio, publiko eta komunitario batera. Eredu horretan, familiek duten zeregina errotzen da, lidergo eta erantzukizun publikoa sendotuz haur eta nerabeen eskubideen sustapenean, eta gizarte-inbertsioaren paradigma bultzatuz.

Trantsizio sozial eta demografikoaren egungo testuinguruan, Itunaren helburua da politiken pakete koordinatu bat antolatzea, honako hauei erantzuteko:

- a) jaiotza-tasa txikiak, eta familia-proiektu bati ekiteko eta nahi den seme-alaba kopurua izateko dauden oztupoak desagerraraztea;
- b) seme-alabak dituzten familien zailtasun ekonomikoak eta desabantailen zikloa hausteko eta pobrezia-eremuak murrizteko.

Horretarako, ituna sinatzen dutenek konpromisoa hartzen dute ondorengo orientabideetan sakontzeko, eta orientabide horiek guztiak garatzeko neurriak izango dituzte:

- o Seme-alabak dituzten familia guztiei baliabide ekonomiko duinak bermatzea eta haurren pobrezia prebenitzea.
- o Gurasoei beren seme-alabei behar duten denbora guztia eskaini ahal izatea erraztea, familien beharretara hobeto egokitzen den gizarte-denboraren antolaketa sustatuz eta erantzunkidetasunezko gizarte-antolaketa bultzatuz.
- o Gazteen emantzipazioa eta gazteen bizitza-proiektu autonomoak bultzatzea, familia eta familia-unitate berrien prestakuntza errazteko, nahi izanez gero ondorengoak izan ditzaten.
- o Gurasotasun positiboko programak, haurren osasunekoak, gatazken prebentziokoak eta familia-bitartekaritza indartzea, gurasoen hezkuntza-gaitasunak indartzeko, ohitura osasungarriak sustatzeko eta familietan gatazkak konpontzeko.
- o Haur eta nerabe guztiek haurrentzako arreta-zerbitzu irisgarriak, eskuragarriak eta kalitatezkoak jaso ditzaten laguntzea.
- o Hezkuntza-politikak berrorientatzea eta eskola-sistema inklusibo eta hezkidetzaren eraikuntzan sakontzea. Sistema horrek ekitatea bermatu eta desabantaila sozial eta ekonomikoa duten ikasleek zailtasunak konpentsatu ahal izango ditu.
- o Haur, nerabe eta gazte guztiek, baldintza berdinetan, baliabide eta gizarte-hezkuntzako, kirol-, kultura- eta aisialdi-ekipamendu eskaintza zabalagoa izan dezaten laguntzea.
- o Familia- eta haur-politiken gobernantza hobetzea eta gizarte- eta hezkuntza-esparrua garatzea.

Familiei Laguntzeko Erakunde arteko IV. Plana (2018-2022) ¹¹. Lau ardatzetan antolatu zen, III. Planaren ebaluazioa eta Familien eta Haurren aldeko Euskal Itunaren orientabideak identifikatzen dituzten ekintza-eremu handiekin bat etorriz.

Honako hauek dira: a) gazteen emantzipazioa eta familia berrien prestakuntza, berez helburu eta jaiotze-tasak gehitzeko baldintza *sine qua non*; b) adiskidetzaren erantzunkidea eta familiei laguntzeko politikak; c) haurren eta nerabeen ongizatea, haien bizi-baldintzei eragiten dieten hainbat esparrutako helburu espezifikoak biltzen dituen; d) familia- eta haur-politiken gidaritza eta gobernantza.

¹¹ V. plana egiteko, adierazi den bezala, estrategia horri jarraituko zaio.

Migratziorako Euskal Itun Soziala. Esparru etiko, prebentibo eta proaktiboa ezartzen du Euskadin immigrazioaren fenomenoari ekiteko, baita haur eta nerabeei eta gazteei dagokienez ere. Bere helburu etikoa da migratzaileen beharrei erantzun solidarioa eta arduratsua ematen laguntzea. Bere helburu prebentiboa aitzakia xenofoboaren populismoen asmoak antzuak bihurtuko dituen batasun sozial eta politiko zeharkakoa osatzea da. Bere helburu pragmatikoa migrazio-erronkari aurre egitea da, gure gizartearentzako hazkunde- eta aurrerapen-prozesuaren zati gisa.

Hiru dimentsio horiek eragin zuzena dute haurren eskubideetan; izan ere, esan bezala, Euskadiko haur eta nerabeen zati gero eta handiagoa atzerrian jaio da eta/edo atzerrian jaioetako pertsonen ondorengoa da, eta, beraz, migrazio-ekintzak edo -prozesuak markatutako bizi-ibilbidea du.

Inklusiorako V. Euskal Plana (2022-2026). Planak haurrekin zuzenean lotutako erronka, helburu eta jarduerak batzuk ezartzen ditu, hala nola ondorengoak dituzten familiei behar besteko babes ekonomikoa bermatzea eta ardurapean duten ondorengoengatik familia-prestazioak hedatzea bultzatzea, bereziki Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren aipatutako haur-osagarria.

Oro har, planaren helburua da zenbait neurri espezifiko ezartzea, pobrezia belaunaldi batetik bestera ez ugaltzeko eta haur eta gazteen pobrezia aurre egiteko (Planaren 13. helburua). Helburu hori eta beste batzuk lortzeko, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren zenbait tresna garatzen ditu, estrategia honetan jada aipatutakoak.

Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plana (2019-2022)¹². Ikasle guztien eskola-garapen osoa eta arrakasta lortzen lagundu nahi izan zuen, eta inklusio-, ekitate- eta bikaintasun-printzipioak errealitate bihurtu, eskola inklusiboa, elkarbizitza positiboa eta bikaintasuna sustatuko dituen esparru batean:

- a) Hartara, ikastetxe guztiek modu eraginkorrean erabili ahal izango dituzte beren baliabideak, pertsonalak eta materialak, ikasleen garapen osorako estrategia eraginkorrak garatze aldera.
- b) Zeregin horretan, elkarlaneko eta koordinatutako lanaren bidez, hezkuntza-prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak inplikatu.

Bere helburuak honako hauek ziren:

- Elkarbizitzarako eta ekitaterako esparru komun bat definitzea, aniztasunaren balioa indartzeko eta hezkuntza-erantzunak eta -praktikak ikasle guztien beharretara eta ikasteko potentzialera egokitzeko.
- Politika eta praktika inklusiboak sustatzea, Euskal Hezkuntza Sistema osoan egiturazko jarduerak garatuz.
- Ikastetxearen autonomia eta erantzukizuna sustatzea, hezkuntzak ikasleekiko duen kudeaketan eta esku-hartzean.
- Hezkuntza-komunitateak ikasle guztien arrakastan duen zeregina eraginkortasunez bere gain hartzea, eta haien ongizate psikosoziala lortzen laguntzen duten sistemakiko, hau da, osasun-sistemarekiko eta gizarte-zerbitzuen sistemarekiko elkarrenergina aktiboki sustatzea.

Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa. Ikuspegi kuantitatibotik adierazi da Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren zorroko zerbitzuen garapena, arretari eta gastuari dagokienez.

Bestalde, plan estrategikoa trazio-proiektuen bidez, gizarte-zerbitzuen eremuan, eta jarduketa osagarrien bidez egituratzen da, gizarte-zerbitzuek beste eremu edo sistema batzuekin (esaterako, gizarte- eta hezkuntza-sistemarekin) elkarrenergiteko eremuetan.

¹² Adierazi den bezala, eskola inklusibo baten garapenarekin lotutako beste neurri batzuen artean, hezkuntza inklusiboko eredu propio bat bultzatzea aurreikusten da.

Proiektu horietako bat EHBEn lanketa, hedapena eta ebaluazioa da. Eta beste proiektu eta jarduera batzuk haur eta nerabeen eta gazteen egoerarekin lotuta daude. Horien artean, honako programa hauek nabarmentzen dira: *Aukerak Suspertzen (desabantaila sozialean dagoen haur eta nerabeen eskolaz kanpoko hezkuntza indartzekoa)* eta *Trapezistak (Euskadin familia-laguntzako sarerik ez duten gazteak helduarora igarotzean laguntzekoa)*. Biak abian jarri ziren pandemiaren eragin sozialari erantzuteko, izaera pilotuarekin garatu dira eta Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Sailaren egitura-programa gisa finkatu dira.

Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia. Gai demografikoa agenda politikoaren eta instituzionalaren erdigunean kokatzea du helburu, eta euskal gizartearekin batera irismen estrategikoa partekatzea.

Helburu estrategikoen artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Gazteen emantzipazioari laguntzeko politikak gure inguruan emaitzarik onenak eskaintzen dituzten herrialdeen mailan kokatzea, eta emantzipatzeko batez besteko adina 30,2tik 29 urtera jaitea.
- Familia-proiektuetarako laguntzak eta jaiotza-tasarako laguntzak gure inguruan emaitzarik onenak dituzten herrialdeen mailan jartzea, jaiotza-tasaren beheranzko joera aldatuz.

Horretarako, haurren eskubideekin zuzenean lotutako jarduera zehatzak ezartzen ditu, eta garrantzitsuenak honako hauek dira: ardurapeko seme-alabagatiko zuzeneko laguntzak, 0-2 urteko (Haurreskolak) doakotasuna eta aitatasun- eta amatasun-baimenak hedatzea. Guztiak martxan daude.

Euskadi 2030 Osasun Plana. Zeharkako helburu gisa planteatzen da osasun-arloko desberdintasunak murriztea eta, esparru horretan, haur eta nerabeek beren osasun-ahalmen guztiarekin sortzea, haztea eta garatzea. Haur eta nerabeen osasunean egindako inbertsioak osasunerako eta ongizaterako duen eskubideari erantzuten dio, osasunean ondorio iraunkorrak ditu helduaroran, eta eragina du gizarte osoarengan epe luzera.

Bizitzako lehen urteetan osasunean inbertitzeak hazkuntza ona sustatzen duten familia-inguruneak sustatzera bideratutako ekintzei ekitea dakar, bai eta osasun-garapen eta -egoeran desberdintasunak murrizteko prebentzioz jardutea ere, osasuna osotasunean hartuta (fisikoa, funtzionala, emozionala...).

Horretarako, berariazko helburu hauek ezarri dira:

- Haur guztiak lehen haurtzaroan jaiotzen eta hazten direla ziurtatzea, ondo hazteko baldintza emozional eta materialak dituen familia-ingurunean.
- Garapen fisiko eta emozional osasungarria erraztuko duten bizi-ohiturak sustatzea.
- Norberaren osasun fisiko eta emozionalerako arriskuak prebenitzea.
- Osasun- eta gizarte-arreta bikaina jasotzen dutela ziurtatzea, gaixotasun-arazoei eta/edo dibertsitate funtzionaleko egoeretan dauden mugei aurre egiteko.
- Garapenean eta osasun emozionalean, funtzionalean, fisikoan, portaeran, sozialean eta kognitiboan desberdintasunak murriztea.

Zainketen aldeko etorkizuneko herri-itun baterako oinarriei buruzko akordio sozialak, zibilak eta instituzionalak. Hiru mailetako elkarriketa-prozesu batzuen emaitza dira, 2023an eta 2024ko otsailera arte egindakoak, eta etorkizuneko herrialde-itun baten oinarriak finkatzeko balio izan dute. Oinarri horien gainean irekita eta eraikitzen jarraitu behar duten zainketen aldeko herrialde-ituna, datozen bi hamarkadetan euskal zaintza-eredua eraldatzen jarraitzeko, funtsezkoak izango baitira.

Prozesu hori Elkarriketa Sozialerako Mahaian eta Euskadiko Elkarriketa Zibilerako Mahaian garatu da, eta Emakundeko Aholku Batzordearekin eta Migrazio eta Asilorako Euskal Foroko Berdintasun Batzordearekin ere kontrastatu da. Gainera, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta hiru hiriburuetako udalek akordio instituzionala lortu zuten.

Akordioek hainbat alderditan eragiten dute; alderdi horiek guztiak zaintza-eredu propio, publiko eta komunitario baterantz aurrera egiten jarraitzeko beharrari begira daude, lidergotik eta erantzukizun publikotik, sektoreen arteko lankidetzatik eta emakumeen eta gizonen erantzukidetasunetik. Bost ardatzetan oinarritutako eredua (zaintza-lana aitortzea, saritzea, murriztea, birbanatzea eta antzetztea), eta zainketarako eskubidea bermatuko duena, ikuspegi eta arreta komunitarioa indartuko dituen eta zaintza-politika zeharkakoa, sistemikoa, prebentiboa eta inklusiboa bultzatuko duena, genero-ikuspegia eta sektore artekoa izango dituen.

Bizi-ziklo osora iritsiko den zaintza-politika, haurtzaroan eta nerabezaroan hasiko dena eta, besteak beste, honako alderdi hauek sustatuko dituen: a) laguntza publiko, erantzunkide eta bidezkoa izango duen zaintza bultzatzea; b) laguntzak familien aniztasunaren premietara egokitzea, arreta berezia jarritz familia ugarietara eta ama-bakarrekoei; c) haur-bermeari dagokionez, genero-ikuspegia eta sektore artekoa hartzea, ardurapean adin txikiko seme-alabak dituzten atzerriar jatorriko emakumeen beharrezkoak kontuan hartuko dituen.

4. HAUR BERMEA LORTZEKO EUSKAL EREDUAREN OINARRIAK

4.1. KONTZEPTU-ESPARRUA

Euskadiko Haur Bermearen Estrategiak, Europako Haur Bermearen esparruan, bi definizio giltzarri planteatzen ditu, Haur Bermearen xedeari buruzkoak (helburuak, ekintzak, hartzaileak), esperientziatik eta estrategiaren hedapen eta ebaluaziotik balioztatu eta aberasteko.

Haurren bermetzat jotzen da berariazko ekintza (politika), sektoriala eta zeharkakoa, epe ertain-luzera, haurren eta nerabeen kalteberatasuna murriztera eta jaiotzatik aukera-berdintasuna sustatzera bideratua eta eskubide guztiak modu eraginkorrean baliatzera bideratua dagoena, adin-nagusitasunera arte, momentuko bizi baldintzak eta etorkizuneko aukerak hobetuz.

Hori guztia egiteko, ekintza orokorrak, haurtzaroan inbertitzekoak, eta kalteberatasun-egoeran dauden haur eta nerabeei eta haien familiei zuzendutako ekintza positiboa konbinatu behar dira. Hala, eskubideekin lotutako eremu guztietan, lidergo publikotik eta gizarte osoaren parte-hartzetik, elkarri eragiten dioten desabantailen zikloa (ekonomikoak, sozialak, hezkuntzakoak, kulturalak...) eta pobreziaaren belaunaldien arteko transmisioaren zirkulua apurtu behar dira.

Kalteberatasun-egoeran dauden haurrak dira gizarte-bazterketa, bazterketa edo pobrezia arriskuan dauden arrisku-egoerei aurre egiten dieten haur eta nerabeak, adin-nagusitasunera arte, kontuan hartuta, hala dagokionean eta Europako Haur Bermearen arabera, haur eta nerabeen desabantaila espezifikoak:

- familia ugarietakoak edo guraso bakarrekoak;
- etxerik gabe edo etxebizitzaren arloan gabezia larria jasaten dutenak (bizitegi-bazterketa larrian);
- ezgaitasunen bat duena;
- osasun fisiko edo mentaleko arazoak dituztenak;
- jatorri migratzailekoak edo gutxiengo etniko batekoak, bereziki ijito-etnia batekoak;
- laguntza alternatiboa jasotzen dutenak, batez ere harrera-zentroetan bizi direnak (babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan daudenak);
- familia-egoera prekarioetan (pobrezia-egoera bizi duten etxeak, gabezia materiala, gizarte-bazterkeria);
- egoera zaurgarriko hiri-inguruetan eta landa-inguruetan bizi direnak.

Horrela, eta lehen adierazi den bezala, EHBEn helburua da EAEko haur eta nerabe guztien bizi-baldintzak hobetzea, adinez nagusi izan arte, eta arreta berezia eskaintzea zaurgarritasun-egoerak jasaten dituztenei, hemen definitutako baldintzetan, Europako Haur Bermearen ikuspegiarekin bat etorritz.

Etxebizitza eskuratzean, haurren hezkuntzan eta zaintzan, eskolaz kanpoko jardueretan, osasun-laguntzan edo elikadura osasungarrian zentratzen bada ere, beste elementu batzuk ere lantzen ditu, hala nola, hazkuntza egiteko familientzako laguntzak, kontziliazio erantzunkiderako laguntzak eta gurasotasun positiboa, gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea eta aisia, kultura edo garraiorako sarbidea.

EHBEren oinarri den kontzeptu-esparrua ondorengo 10 oinarritzko elementuetatik eratortzen da.

1. Haur Bermearen kontzeptualizazio zabala.

Adierazi den bezala, Europako Haur Bermeak berariaz aipatzen ditu etxebizitzaren, osasunaren, hezkuntza- eta haurren zaintzaren eremuak. Euskal estrategiak, horiekin batera, Euskadiko testuinguru sozioekonomiko eta soziokulturean haur eta nerabeen eskubideak gauzatzeko funtsezkoak diren beste esparru batzuk ere barne hartzen ditu.

Zehazki, eta besteak beste: hazkunderako laguntza ekonomikoak eta gurasotasun positiboko eta kontziliazio erantzunkideko programak; esku-hartze sozio-hezitzailea eta babesgabetasunaren prebentzioa (gizarte-zerbitzuak), eta gutxieneko baliabide ekonomikoen bermea (diru-sarreraren bermea); kultura-, aisia- eta aisialdi-jarduera hezigarrietarako eta kirol-jardueretarako sarbidea; inklusio digitala, edo hiri-espazioa haurren beharretara egokitzea.

2. Haur eta nerabeen eskubideak erabiltzeko oinarri materialen garrantzia.

Nazioarteko, estatuko eta autonomia-erkidegoko araudiek haur eta nerabeei aitortzen dizkieten eskubideak haur eta nerabe guztien eskubideak dira, salbuespenik gabe. Hala ere, horiek benetan gozatzea, beste faktore batzuen artean, jatorrizko familien baliabide ekonomiko, kultural eta hezitzaileek baldintzatzen dute praktikan, eta ekintza positiboko neurriak hartzea beharrezkoa egiten du.

Araudiak jasotzen dituen sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketek, garapen osoa lortu ditzaten, kontuan hartu behar dituzte haur eta nerabe guztien eskubideak benetan erabiltzen direla bermatzeko behar diren oinarri materialak eta haur eta nerabeen eta haien familien bizi-baldintzen lotutako faktore sozioekonomikoak. Horrenbestez, bai Europako Haur Bermea, bai EHBE, haurren pobrezia-egoeren azpian dauden desabantaila-, gabetasun- edo desberdintasun-egoerak konpentsatzeko aukera ematen duten elementuetan oinarritzen dira.¹³

3. Gizarte eta hezkuntzako desabantailaren garrantzia.

Euskal strategiaren hurbilketa definitzen duen beste elementu bat, gizarte- eta hezkuntza-desabantailari aurrea hartzeak duen garrantziari buruzkoa da. Horrela, bada, gizarte-bazterkeria, pobrezia, babesgabatasuna, indarkeria, abusua, arduragabekeria edo eskola-porrota bezalako egoeretatik haratago¹⁴, gizarte- eta hezkuntza-desabantaila haurrei zuzendutako esku-hartze publikoaren funtsezko eta zeharkako ardatz bihurtu behar dela uste du EHBEk, haurren eta nerabeen zati nahiko garrantzitsu baten eskubideak eta ongizatea nabarmen murrizten dituen heinean.

¹³ Ildo horretan, Europako Haur Bermea ezartzen duen Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendioak honako hau ezartzen du: “funtsezko zerbitzuetarako sarbide eraginkorra eta doakoa errazteko, estatu kideek —egoera eta ikuspegi nazionalen arabera— zerbitzu horiek antolatu eta eman behar dituzte, edo, bestela, laguntza egokiak esleitu behar dituzte premia-egoeran dauden haurren gurasoek edo tutoreek zerbitzu horien kostua edo gastuak ordain ditzaten”. Arreta berezia jarri behar da, gomendioaren testuak gaineratzen duenez, izan daitezkeen kostuak oztopo izan ez daitezen errenta txikiak dituzten familien beharretan dauden haurrek funtsezko zerbitzuak erabat eskura ditzaten.

¹⁴ Elementu horietan guztietan arreta berezia jartzen da aurrez adierazitako arau eta planetan.

Gizarte eta hezkuntzako desabantaila:

- Haur eta nerabe batzuek hezkuntza- eta kultura-garapen egokia lortzeko (haurren eta nerabe guztien partekoa) dituzten oztopoak ari da; erakunde-, gizarte- eta familia-ingurune gabezia sozioekonomiko, sozioedukatibo edo soziokulturalen ondorioz. Oztopo horiek denboran irauteak, pobrezia eta gizarte-bazterkeria izateko arriskua, kronifikazioa eta belaunaldien arteko transmisioa areagotu egiten ditu.
- Ez du eskumenik ongizate-sistemaren (hezkuntza, osasuna, gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea, eta abar) berariazko xede gisa, eta sistema horien guztien bitartekoetan dago kokatuta.
- Horrela definituta, eragin bereziki larria du “ezagutzaren gizartearen” testuinguruan, desabantaila hori jasaten duten herritarrek zailtasun handiagoak bait dituzte beharrezko gaitasunak eta trebetasunak eskuratzeko.

